


Nafarroa

Nafarroako gehigarri berezia / Ostirala, 1992ko martxoak 20



Altsasuko saihasbidea, etorkizunerako lana

Betidanik Nafarroako ate garrantzi-tsuenetakoa, Altsasuk bere errepideen berrikuntzari ekin berri dio, Sakanako autobideak eta N-1 bideberriak eskatzen duten egoerari aurre egin nahian. Burundako herriko bihurtunean lan handiak egingo dira datozen urteetan, eta zati baten proiektua informazio publikoan dago jadanik.

Bertan, azpimarratzekoak dira prebisiio falta eta altsasuarrek jasango

dituzten ondorioak. Duela zenbait urte errepide berria eginda, goitik behera berregin beharko da berriro, bere inguruan eraikitakoaren kalterako. Halaber, duela bost bat urte egin zen lur sailen konzentrazioa dela eta, kalte handiak eragingo ditu lan berriak zenbait jaberengan, desjabetzapenek frankotan ukituko bait dituzte.

Nolanahi ere, Altsasuk etorkizunerako apostua egina dauka, ondorio

guztiekin, eta bertako alkateak, kasu, aurrera begiratzeko deia egin du garbi. «Izan ere, orain izan ditzakegun arazo franko aurretik zuhurrak izateagatik etorri zaizkigu». Halaber, Sakanako herrietako batzordeak proposatzen duen alternatibaren aurka azaldu da Jose Manuel Goikoetxea. «Bi mila milioi pezeta aurreratuko dela diote, eta kopuru horrek ez dauka garrantziarik horrelako lan batean».

Barnean

ALDIZKARIAK



Matias Escribano
eta 'Ribera Navarra':
Erribera baitan / VII

BERTSOLARITZA



Nafar Txapelketaren
bigarren saioa
igandean Luzaiden / III

Amen eta omen



AINGERU EPALTZA

Iruñerrian 30.000 euskaldun omen gara. Horren berri lagun erdaldun batek eman zidan duela zenbait hilabete, ez dakit zeren inguruan egiten ari zen propagandan irakurri eta miretsirik. Nik, bistan da, baietz lagunari, ez dakitenean aitzinean agertu beharreko aire triunfalista zuriarekin. Gero eta gehiago ginela eta oraingoz 30.000, baina baietz 93.rako 40.000 aldera izan Hiriburu aldean.

Etzeratu bezain abudo, aldiz, 86.eko erroldako datuen liburuxka —iazkoak ez dira oraino ezagutarazi— neregianatu nuen, batbateko hazkuntza mirakulos hori zertan zetzan asmatu ezinik. Irri egin nuen berehala: propaganda-egile abilak bere kasa bikoiztua zuen egiazko zenbakia, euskaldunei 'cuasi-euskaldunen' kopuruak gehituz.

Libertigarri izan zitzaidan. Errealitatearekin ikusteko gutti izanik ere, bazuen datu 'objetoetan' oinarritzen diren gezur guzien egiantza eta horrek indar berezia erasten zion, nere lagun erdaldunaren kasuan bezala, euskararen inguru-mingurez bat ere jauntziarik ez dagoen jendearengan eragiterakoan. Bertzalde ere, ez da lerdokeria, erdaldunengana hurbiltzekotan, betiko negarrak isuri eta ohizko miseriak haizatu beharrean, mezu baikorrek erabiltzea. Gezurra izanagatik.

Izanez ere, nere laguna bezalako batek ez du zertaz jakin behar erroldak 'cuasi-euskaldun' deitu zaku horretan denetarik aurki daitekeela: egiazki euskalduntze bidean daudenak eta helmugara ailegatu gabe, trenetik aspaldi jautsi zirenak; «ttikitari bai biñon luego atzendu y ahora solo palabras» diotenen kofradiakoak eta aberzaleatasunaren beroaz «kaixo» eta «agur» baino gehiagorik ez dakitela beren buruari onartzeko lotsa direnak. Hain juxtu ere, Jaurilaritzako teknikoek, errolda bakoitzean, jendea euskaldunen gurdira uholdeka igoz, estatistika guziak antzarrak ferratzera joan ez zitezen asmatu zuten, bertzeak bertze, 'cuasi-euskaldunen' multzo ez ardo-ez ur hori, gero Nafarroan kopiatu zena. Horretaz landa ez du sekula fidagarritasun haundirik eskaini.

Hori dena kontutan harturik, berriz diot, maniobra pollita iduritu zitzaidan kanpokoei begira baliatzea.

Duela hilabete bat, ordea, zenbaki borobil hori EGUNKARIA honetan berean irakurri nuelarik, kezka amine bat sortu zitzaidan barrenean. «Gerorrek sortu gezurrak sinisteari ematea ez ote da eskizofreniaren lehen erakutsia?» egin nuen orduan nere baitan.

Berriki, ustezko 30.000 euskaldunena, proiektu baten abiapuntuaren artean ikusi dut. Eta jadanik ez zait kezkarri iduritzen, arriskutsua baizik. Ez daude garaiafak zaflakoak debalde eta inozokeriaren inozokeriaz hartzen hasteko.

Gure Aukerak

KIROLA

Eskubaloi Kopako finalak ari dira jokatzeko Nafarroan, eta neurketa interesgarriak izanen dira asteburu honetan. Gaur ostirala, Iruñean, Teka eta Avidesa arituko dira aurrez aurre, arratsaldeko 19.30etatik aurrera. Mendavian, Barcelona-At. Madrid neurketa ezin interesgarriagoa ikusteko parada izanen da, gabeko 20.15etatik aurrera. Erdifinalak eta finala larunbata eta igandean.

Urkiagako Lepoa, Albako Peña eta Aldudesetik ibilaldia antolatu du Nafar Kirol Taldeak hurrengo iganderako. Izen-emaitea elkarteak Jarautá kalean duen egoitzan egin behar da.

ZINEMA

'Siempre Xonxa' Chano iñeireoren filmarekin emanen diote gaur bukaera Nafar Ate-neoak Nafarroa eta Amerikaren arteko harremani eskaini dion zine zikloari. 'Siempre Xonxa' filme galiziarrek emigratioak Galizian izan duen eragina azaltzen du. Chano Piñeireoren lehengo luzemetrai honek itzuleraren frustrazioa isladatzen du. Surrealismoa, magia eta umorea dira zinta honen ezaugarri nagusiak. Emanaldia arratsaldeko 19.30etan izanen da Nafarroako Museoa.

ERRAN DUTE

Langileok enpresari-ekin baino ia bi bider sarrera gehiago aitortzen dugu».

Jose Ignazio Sueskun
ELA sindikatuko ordezkaria

«Ez naiz kazetarietaz fidatzen».

Juan Cruz Alli
Nafarroako lehendakaria

«Intsumisoen jarrera ez da 'muzin egitea', batzuk dioten bezala; aldiz, zama astun bat euren gain hartzea suposatzen du».

Fermin Ziaurriz
Eako parlamentaria

«Iruñeko Udaleko taldeek 'Diario de Navarra' irakurtzen dugu Udaleko informazioa».

HBko udal taldea

Atsedenerako aproposa

Orba Ibarra Tafalla eta Iruñaren arteko txoko goxoa da, bi hirien arteko atsedengunearen antzera. Egun herri asko ia desagertzeaz egonda ere, urte luzez populazio sobera izan zuten herriek, eta etxegalte eta izen handiko familien jaioterria izan zen.

Leku lasaia, herrixka hauek aproposak oso dira patxada ederean asteburu eta oporraldiak pasatzeko. Unzuen San Millango eliza bisita daiteke, XI mendekoa dena. Herrian bertan ere Artederrretako Ama Birjinaren omenez eraikitako basiliza dago, Somportetik zetorren Santiagoko bidearen behialako ospitala, alegia. Olorizen nabarmentzekoa da San Pedroko ermita, paraje izugarri batean kokatuta. Daukan hornidura oso aipatzekoa da.

Barasoain eta Garinoain dira Orbako herri handienak, baina ez dute lauhun biztanle baino gehiago. Hortik ikusten da ibar osoko giroa, patxadarako aproposa oso.

Iratxetan aurkitzen den garia



oso orijinala da arkitekturari dagokionez, eta duela gutxi berritu dute. IX mendekoa dela esan badeute ere, azken azterketek XIIkoa dela adierazten dute. Harriko dena, eskailera hasieran egurrezkoa zen. Sansomainen ikus

daiteke Urkamendiko gurutzera, Benegorritik Garinoain eta Orsoaindik zehar Tafallara joaten diren bideak elkartzen diren lekuan. Benegorri ere behialako jauregia da ikustekoa eta Amatriainen San Pelaioko basiliza.

Muñozen eskutik izango dira.

Euskal Zinearen III Erakustaldiaren azkeneko emanaldia martxoaren 25ean, asteazkenean, izanen da Iruñeko Principe de

Viana Aretoan. Juan Luis Mediarazaren 'Petit Casino' eta Jose Luis Teranaren 'Zapata miragarriak' laburmetraiak, eta Ernesto Telleriaren 'Eskorpion' luzemetraia ikusteko parada izanen da.

ASTEKO PERTSONAIK

Antonio Aragon



Politikaria

Patxi Eugi



Pilotaria

Pedrag Spasic



Osasunako atzelaria

Egun Ebroko Konfederazio Hidrografikoko presidente eta Nafarroako Herrilan kontseilari izandakoak garbi azaldu zuen pasa den igandean Itoizko urari eman nahi zaion erabilera. Garbi azaldu, alegia, ez dakiela zehazki zertarako erabiliko duten. Hasieran, Erriberako lurraz ureztatzeko zela azaldu zuten. Argudio ahula, bertako nekazaritza maldan behera doalako. Ondoren, Erriberako biztanleen kontsumorako izango zela esan zuten. Orain, Iruñerriko omen da, Aragonen esanetan. Hain zuzen ere, 2000. urtean Iruñea alerta gorrian egongo dela azaldu zuen Aragonen, eta baita gehiago ere: Arga ibaiaren garbiketarako ere erabiliko dela, alegia. Halaber, Itoizko urtegia «Nafarroako lanik garrantzitsuena» zela berretsi zuen, eta itsu itsuan bere aldeko defentsa egiteko deia egin zuen.

Agoizko gazteak buruz burukoan bere lehendabiziko esamina bikain notaz gainditu zuen joan den igandean Labriten jokatu zuen partiduan. Unanue giputz aurrelari gaztea errez menderatu zuen Eugik, eta Errasti azkoitiarra du orain zain. Bidea ez du erreza pilotari gazteak, baina askoren ustez gauza asko egiteko gai bada. Errasti menderatuz gero —ongi jokatzeko badu, aise lortuko duelakoan gaude hemen— pilotari handien txanda izango da ondoren. Errandonea beratarra eta Arretxe luzaidearra gogo handiz daude buruz bururako, eta bereziki Arretxe faborito nagusien artean dago, kontutan hartuta duen maila eta egoera fisiko aparta. Nolanahi ere, Eugik zer esan franko izango du, ez baita kokiltzen den horietakoa. Are gehiago, izugarritzko gogoak ditu gazteak.

Atzelari serbiarrak Osasunanoiz egin diren kritikarik gogorrenetakoak jaso ditu aste honetan, Zaragozaren kontra jokatu zuen partidua kaskarraren ondorioz. Orain arte gauza asko barikatzen zitzaizen gorritxoek, zela zela dena ematen zutelako, zela denak jabetuak zirelako gorritxoek mugez. Hala ere, atzeritarren etorrerak eta UEFAn egindako partidua bikainek asko igo zuten maila, eta batzuk ahaztu egin dute, Zabalzak askotan gogoratu arren, Osasuna talde ona dela, baina ez handienetakoa. Spasicek jasan ditu kritika guztiak, baina garbi dago talde osoaren errua dela egoera kaskarra. Ea urak baretzen diren eta zaletu nafarrek berriro beren taldearekin bat egiten duten. Denon mesederako. Izan ere, garaipenak mugak behin ezagututa etortzen bait dira.

Iruñeko Udaleko Hiritar Eragintza Alorrak Euskal Filmategiaren laguntzaz antolatutako zikloa arratsaldeko 19.30etan hasiko da.

'La hoguera de las vanidades' filmea Tafallan egonen da ikusgai hurrengo ostirala, hilak 26 'Hollywoodeko aurpegi berriak' zikloaren barne. Arratsaldeko 20.00etan eta gaueko 22.30etan ikusteko parada Español Zinema aretoan.

ANTZERKIA

'La tercera palabra' ('Hirugarren hitza') izenburuko antzezlan eskainiko dute bihar Cas-tejonen Iruñeko Talo Antzerki Eskolakoek. Alejandro Casonaren lana arratsaldeko zazpi terdietan hasiko da bertako kultur etxean.

MUSIKA

Eric Burdon eta Brian Auger arituko dira gaur ostirala Gareseko dantzalekuan. Benjamin Tehoval izanen da gonbidatua, eta kontzertua gaberditik aurrera izanen da.

La Polla Records eta Beltzas taldeak Erratzun (Baztan) arituko dira bihar larunbata, gabeko 11.30etatik aintzinerara. Xorroxin Irratiak antolatutak.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... Xinguli Mangulu. haurrendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 13.00etatik 13.45etara... Informazio Saioa Baztan, Malerreka eta Bortzirietako informazioa. Elizondo, Bera eta Lesaka egunero.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazkenean FMn 21.00etatik 22.00etara... Gautxori irratia saioa. Narrazioak.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

Bertsolari txapelketa Luzaiden

Artengo Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren saioa izango da igande honetan Luzaiden. Han izango dira, nor baino nor, Fermin Mihura azkaindarrak, Jose Migel Argiñarena errazkindarra, Urko Atxutegi urruñarra, Salvador Madariaga arantzarra, Eusebio Fagoaga iturendarra, Txomin Ezponda jatsuiarra, Bautista Perurena goizuetarra eta Joanes Arrosagarai aintzilearra.

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Arratsaldeko lauretakoa dute ordua zortzi bertsolariek, Donazaharren egindako lehendabiziko saioan ez bezala, iragarritako denak azalduz gero. Orduan Joanes Arrosagarai joaterik ez zuen izan, eta Ernest Alkhatek abestu zuen beraren partez.

Aurtengo txapelketaren bigarren saio honek Luzaideri egingo dio bisita, aspaldiko partez. Izan ere, aurtengo izango da Nafarroako txapelketa batek Juan Cruz Arrosagarai eta Juan Etxamendi 'Bordelen' herrian antolatzen duen lehendabiziko saioa.

Norgehiagoka interesgarria, beraz, lehendabizikoa baino parekatua dela esatea badago eta. Txanda honetan ez da nobedade handirik, denek ederki ezagutzen bait dute elkar. Zerbait aipatzekotan Urko Atxutegi gaztea bigarren aldiz arituko dela txapelketan, iazko Izurako saioan txalo beroenak hartu ondoren.

EZPONDA ETA ARGIÑARENA Iazko finalean egon zen Txomin Ezponda izango da Luzaiden, eta berarekin batera Jose Migel Argiñarena errazkindarra. Azken hau protagonista izan zen txapelketaren bigarren garaiko lehendabiziko urteetan —1979tik aintzineran—, eta orduan onenen artean aritu zen. Horrela, bi txapel jantzi zituen —1979an eta 1982an, biak Lesakan egindako saioetan— estraineko partehartze haietan. Bitarteko urteetan bigarrena gelditu zen, Mixel Xalbadorren



Etxarri-Aramatzen iaz jokaturako bertso saioa.

atzean 1980an eta Jean Pierre Mendibururen gibeletik 1981ean. 1983an jokaturako txapelketan ere txapeldunordea izan zen Jose Migel Argiñarena errazkindarra, baina ondoren, eta osasun arazoak barne, ez dio lehendabiziko urte haietan erakutsitako mailari eutsi. Partaide bikaina izan da hala ere, soilik 1987an egin bait zuen huts, hain zuzen

ere osasun arazoak zirela eta. Txomin Ezponda ere partaide ezinbestekoa izan da azken urteotako txapelketan, eta guztietan saio onak burutu ditu, urte oro finalean aritu bait da. 1983tik huts egin gabe —1990ean izan ezik—, txapela jantzi zuen lehendabiziko urtean, 1983an, hain zuzen ere.

Bitan bigarren —1985ean, Xalbadorren atzetik, eta 1987an Alk-

haten atzetik— beti maila polita erakutsi du aintzilearrak, eta igandean protagonista nagusietakoa izango da, dudarik gabe.

Beste guztiak ohizko partaideak dira Nafarroako txapelketetan, eta beraiekin batera izango da bigarren aldiz Urko Atxutegi gaztea. Hain zuzen ere, bera izan zen iazko nobedadea, aspaldiko partez gazte bat igo bait zen eszenatoki berezi honetara. Txalo sorta jaso zuen orduan, eta denek azpimarratu zuten gazteria sartzearren garrantziaz.

Aurtengo bi gaztek eman diote segida, eta atzetik datozenak ikusita, gehiago izango dira hurrengo urteetan.

Joxemiel Argiñarena protagonista izan zen bere lehendabiziko partehartzeekin, bi txapel jantzi bait zituen orduan —1979an eta 1982an, Lesakan—.

Omenaldia egingo diote gaur Perez Salazar iruinsemeari

M.K. / IRUNEA

Modan omen dago azkenaldiotan Iruñean omenaldiak egingo direla, eta Joaquin Arazurirenaren ondorengoa, Jose Maria Perez Salazarren txanda da oraingoa. Nafar Ateneoa, Club Taurino Peña Pregon eta Prentsa Elkarteak batu dira horretarako, eta gaur Maisonnave hotelean bilduko dira gabeko zortzi t'erdietatik aurrera, merezimendu osoz antolatutako ekitaldi batean. Izan ere, literatur eta beste arlotako ekintza kultural asko gizon honen bultzada etengabekoa izan dute urte askotan zehar Nafarroako hiriburuan.

Perez Salazar ederki ezaguna da Iruñean arlo frankotan egindako lanagatik, baina dudarik gabe, herriko historian txupinazoarekin lotuta izango da beti. Izan ere, bera izan bait zen, Joaquin Ilundainekin batera, orain dela berrogeitamar urte txupinazoa Gaztelu Plazatik Udal plazara eramateko

erabakia bultzatu zuena. Gaur egun Sanferminetan ezinbestekoa dirudien ekintzaren sortzailea, alegia.


Hain zuzen ere, iazko Sanferminetan birplanteatu zen aspaldiko partez txupinazoa berriro Gaztelu plazara eramatea, hainbat jende biltzen zuen eta. Erabakia, baina, planteatu baino ez zen egin, franko errotuta bait dago gaur egun ohitura.

ELKARTE FRANKOKO PARTAIDEA Baina horrekin batera, elkarte askoren partaide eta bultzatzailea izateagatik da ezaguna aurtengo 80. urte beteko duen iruinseme hau. Estafeta kallean jaioa, betidanik kulturarekin eta herriko ekitaldiekin lotuta izan da, eta Nafar Ateneoaren sortzailetakoa izan zen 1932an. Bera ere berreskuratu zuen elkarte demokratikoa garaiaren hastapenetan. Iruñeko Orfeoiko partaide eta burua ere izan zen,

eta kolaborazio franko egin ditu aldizkari eta irratiaren, bereziki zuzen eta literatur gaietan.

Iazko Sanferminetan Nafardi elkartearen Urrezko oilarra saria jaso zuen, eta Alfredo Jaime alkateak txupinazoa bat botatzeko ohorea ere eskeini zion. Bete ere, iaz bete bait ziren udaletxeako plazara eraman zenetik berrogeitamar urteak. Mundu osoan ezaguna den ekitaldiaren urrezko ezteiak, alegia. Omenaldia egin eta antolatu duten elkarteek martxoaren 21a zuten aukeratua data, «kontutan hartuz omenduak poesiarekiko duen grina» baina azkenean atzeratzea deliberatu zuten, egun hartan ekitaldi kultural franko zegoela eta —Sociedad Filarmonicaren kontzertua eta Bilboko opera ziklo bat—.

Omenaldian 150 pertsona inguruk hartuko dute parte, eta antolatzaileek guztiz baieztatu ez badute ere, litekeena da Alfredo Jaime alkatea ere bertan izatea.



Jose Maria Perez Salazar.

Altsasun informazio publikoan dago jadanik N-1 eta Sakanako autobidea uztartzeko lanen proiektua. Lan erraldoia, ez alferrik Nafarroako bihurtzerik garrantzitsuenetakoa izango bait da. Gutxi ukatzen dute herrian lan egin beharra, baina bai, ordea, prebisio falta, duela gutxi egindako antzeko lanek berriro aldatu eta askotan bota egin beharko bait dira. Halaber, desjabetzapenak, duela bost urte konzentratutako lur sail franko ukituko dute. Alferrikako lana, beraz, hura.

Altsasuko uztarria funtsezkoa izango da Nafarroa osorako

MATTIN KAPITANSORO / ALTSASU

Altsasuko saihebidia egiteko agindu forala pasa den otsailaren 3an sinatu zuen Jose Ignacio Lopez Borderias Herrilan, Garraio eta Komunikabide kontseilariak, eta otsailaren 21ean eman zen ezagutzera.

Bideberri Zerbitzuaren azterketaren arabera, N-1 eta Iruñea-Gasteiz bideberriak lotuko dituen lan berria 120k/orduko abiadurarako aproposa izango

da, eta mail ezberdineko gurutzak eta mota guztietako sarrerak izango ditu. Garrantzi handiko lana, alegia.

Proiektuak 15 zubi dauzka aurrikusita, eta haien artean azpimarratzekoa da Burunda ibaiarekin uztartzen dena, Harriurdinzuoren inguruan. Bertan, hiru mailako uztarri

erraldoia izango da, ibaiarekin ezezik, N-1, Irun-Iruñea eta Iruñea-Gasteiz bideberriekin ere elkartuko bait da.

Baina proiektu honen alderik garrantzitsuenak, dudarik gabe, Altsasu eta Nafarroa osoarendako izango duen garrantzia da. Nafarroa osoak N-1ekin duen lotura bakarra da Altsasuko hau, eta Sakanako autobidearekin han uztartuta, lurralde osoko bihurtuko da. Iruñea eta Gasteizen arteko bidea ezezik, Madril eta Espainiako iparralde osoarako ezinbesteko erdigunea Nafarroarako, alegia.

Eta Nafarroarako onuragarria izango bada ere, Altsasun izango du eragina aztertzea oso, bertako lur desjabetzeak franko handiak izango bait dira. Izan ere, 360 hektarea inguru izango dira desjabetzeak jasango dituztenak, zazpi mila biztanle eskas duen herri batean. Honi gehitu behar zaio lurra konzentratu berriak zirela.

Altsasuko soro eta lurren konzentrazioa duela bost bat urte burutu zen, urteak iraun zuten makina ahalegin eta saio egin ondoren. Konzentrazioa ia eraba-

tekoa izan zen, baina oraingo proiektuak konzentrazioaren beraren helburuak zeharo hondatuko dituela ematen du. Izan ere, desjabetzapenak jasango dituzten lurren kopuru handia, hain zuzen ere, konzentratuak zirelako.

Egoera horretan dauden bigarren poligonoko ia lur guztiak, Mugeta eta Arkia inguruko sailak, Olaztiko mugetan daudenak, eta baita bostgarren eta laugarren poligonoko gehienak ere, Zelandi

Nafarroa osoan N-1ekin dagoen lotura bakarra da Altsasuko, eta Sakanako autobidearekin bertan uztartuta, lurralde osoko bihurtuko da honako hau.

di eta Isasia ingurukoak, alegia. Horrela, esan daiteke Altsasuko lur jabe franko lurrik gabe geldituko dela luze gabe, konzentrazio honetan lur gehienak bildu bait ziren lehen oso lur sail eskasetan.


Altsasuko Udaleko lur sailetan arduradunak adierazi duenez, «bidegabekeria» izan da

prozesu guztia, «ez bait da logikoa lur guztiak bildu hortik urte gutxira desjabetzeak izango direla jakinda».

Desjabetzeen prozesua ez da hemen bukatuko, oraingo proiektua soilik Zelandiraino heltzen bait da. Hortik aurrera Etxegaraterainoko bidea geldituko litzateke oraindik egiteko dauden azken proiektuen zain, dagoeneko zenbait alternatiba ezberdin aztertuta baldin badaude ere.

Orain ezagutzera eman den proiektu honetan ere azpimarratzekoa da lanen kopuru handia, duela zortzi bat urte egindako saihebidia guztiz aldatu beharko bait da. Horietan hiru zubi daude: trenbidearena, geltokira doan bidearena, eta Erburukoa, Altsasuko okindegi handiaren ondoan dagoena. Hiru zubi hauek berriro edo bota egin beharko dira, horrek dakartzan ondorio guztiekin.

Ulaiarren egindako lana, bestalde, kamioendako aparkalekua baino ez dela izango garbi dago dagoeneko, nahiz eta lan handi horretan zazpirehun milioi pezetatik gora gastatuak dituzten jadanik.



Goikoetxea: «Aurrikuspen falta nabarmena izan da orain arte»

M.K. / ALTSASU

Jose Manuel Goikoetxea Altsasuko alkateak Sakanako autobidea eta bere garrantzia defendatu zuen jendaurrean duela gutxi, zona osoarako «ezinbestekoa» zela esanez. Oraingo lanez hitzetan ere, Altsasurako ezezik, zona osoarendako ere «funtsezkoa» izango dela dio Goikoetxeak.

EGUNKARIA.— Oraingo lanez gordeko al dute Altsasuk betidanik izan duen betekizuna, hau da, bidegurutze izatearena?

JOSE MANUEL GOIKOETXEA.— Nere ustez, Altsasu ezezik, Sakanako oso lehen zegoen bezala gordeko dute lanez. Hau da, komunikaziorako gune garrantzitsu bezala. Lan hauekin bermatu egingo da hori guztia.

EGUNKARIA.— Trenbideetan egiten ari den plangintzaren barruan 'Y' deitutako asmoak Altsasu kanpoan uzten zuen. Zer ekarriko luke horrek?

GOIKOETXEA.— Trenbidea galtzea oso txarra litzateke herriarendako. Gogoratu behar Altsasun jende asko aritu dela zerbitzuetan: geltokia, errepide eta garraioetan. Orduan, galtzea beti txarra litzateke.

EGUNKARIA.— Proiektu berrian aurrikuspen falta nabarmena izan da. Duela urte gutxi egindako lanak —zubiak kasu— bota beharko dira, eta egin diren lan askok ez dute ezertarako balio izango.

GOIKOETXEA.— Bai, egia da. Zubiak aldatu egin behar dira



Jose Manuel Goikoetxea.

OLALDE

orain dela gutxi egindako saihebidetan. Ulaiarkoa ere ez da lojiko, eta horra heltzerakoan ikusi egin beharko da zer egiten den. Aurrikuspen falta hau nabarmena izan da, eta horregatik oraingo saihebidia etorkizunari begira egingo dugu. Esaten da lur asko hartzen ari dela, baina aurretik ongi izan bagenu, orain ez genituzkeen arazo hauek izango, zuhurregiak izan ginen orduan. Autobiaren kontrako argudioen artean bi mila milioi aurreztuko dugula esaten dute, baina horrek ez du ezer esan nahi, gero segurtasuna eta kalitatea galtzen badu-

gu. **EGUNKARIA.**— Aipatzen den prebisio falta hori ere nabarmena da lursailen konzentrazioan, askori lurra kenduko bait dizkiote denak toki berean bildu ondoren.

GOIKOETXEA.— Lurren konzentrazioa oso fenomeno bitxia izan da Altsasun, baina egin zenean inork ez zekien saihebidia berriak nondik igaroko zuten. Kasu honetan, pertsonen interesak herrien interesen azpian daude, eta ez dago beste aterabiderik. Kalte handia izango da, dudarik gabe, eta horregatik indemnitzazioak eman beharko zaizkie.

Unibertsitate Publikoa ezbaian

M.K. / IRUÑA

'Benetako Unibertsitate Publikoaren Alde' osatu duen kanpainaren barruan, Ikasle Abertzaleak taldeak mahaingurua antolatu zuen joan den asteartean Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (NUP) aretoan. Gaiak, unibertsitatearen gaurko egoera eta Nafarroako bi unibertsitateen arteko harremanak. Bertan parte hartu zuten ikasleen elkarte garrantzitsuenek, hala nola Ikasleen Sindikatua (SEN), Zabalik taldea, Nafar Elkarte Unibertsitarioa (AUN) eta Ikasle Abertzaleak taldea bera.

Jende asko aretoan, eta partaideek eztabaida sakonetan ez sartzea aurretik erabakita bazuten ere, baliogarria izan zen bakoitzaren jarrerak antzemateko.

GALDERA.— Nola ikusten duzue unibertsitatearen gaur egungo egoera?

SEN.— Unibertsitatea lehen elitiko jendea prestatzeko lekua zen, baina gaur egun jendea soberan dago. Hau garbi antzematen da lehendabiziko mailetan, horietan jendea atzera botatzeko joera dagoelako. Halaber, Estatu

espainiar osoan 200.000 lizentziadun inguru dago langabezian, eta teoriarik kualifikazioa duten langileak dira beharrezkoenak. Honen arrazoia zera da: Espainiako Gobernuak ez duela inolako plangintzarik langabetu hauei lana emateko. Bai Madrilgo Gobernua nola Nafarroako aurrekontuen murrizpena aztertzen ari dira, eta horretan sartzen da hezkuntza, jakina.

AUN.— Guri interesatzen zaiguna Nafarroako Unibertsitate Publikoa da, eta horretaz hitz egingo dugu. Lehendabiziko arazoa zera da: eskaintza eskaeraren arabera egin behar dela. Aurrekontuak publikoak dira, eta gobernua hezkuntzarako eskubidea ziurtatu behar badu ere, espezializazioa beti atzetik etorriko da. Eskaera ezagutzeko eskoletan inkestak egitea modu ona litzateke, gure ustez. Bigarren puntua hezkuntzaren kalitatearena litzateke, eta Europako irizpideen

arabera, irakasle bakoitzak ezin du hogeitabost baino ikasle gehiago izan, eta hori, bistan dago, ez da betetzen.

ZABALIK.— Nafarroako Unibertsitate Publikoaz hitz egiterakoan, ez dakigu Nafarroaz edo Iruñeaz hitz egin behar den, dena hemen dagoelako. Gure ustez, hau deszentralizatu egin beharko litzateke, Erribera zein Mendialdetik datorren jendeak oztopo handiak bait ditu ikasketak egiterako orduan. Ikasketetan, ados gaude, inkestak egin beharko eskaera ezagutzeko. Eskaera izanez gero, paratu beharko lirateke.

IKASLE ABERTZALEAK.— Masifikazioa arazo bat da, baina nola kendu hori? Oztopoak paratzen badituzu, jende asko kanpoan gelditzen da, eta beste ikasketak egitera bultzatzen duzu. Irakaslegoari dagokionez, maila bajua da, nabarmen. Ez direla onak, ez dutela esperientzia, gogorik falta... Bestalde, lehen soilik unibertsitate bat zegoen Nafarroan, orain bi. Ea gutxiagotasun kon-

SEN.— Soluziobidea litzateke garrario egokiak paratzea, egutegi aproposekin, eta ikasleendako egoitzak eraikitzea, beste hainbeste lekutan dauden antzekoak. Hauek unibertsitateek beraien paratzen dituzte.

IKASLE ABERTZALEAK.— Baze goen asmo bat lauhun bat ikasleendako etxebizitzak eraikitze-ko, baina ez da deus egin. Horri jarraipena eman behar diogu ikasleek, eta unibertsitateko buruekin hitz egin.

GALDERA.— Eta euskarari buruz zein da AUN eta SENren jarrera?

AUN.— Euskarari buruz gure jarrera zera da: euskara behar duenak, bere alde lan egin dezala. Gure ustez, badaude beharrak askoz ere premiazkoagoak, baina begirunea diogu gaiari.

SEN.— Gure ustez, garbi dago. Euskaraz eta erdarazko ikasketak beharrezkoak dira, eta klaseak ere izan beharko lirateke ikasteko aukera izan ez duten guztiendako.

GALDERA.— Nafarroan badago lekurik bi unibertsitateendako?

SEN.— Garbi dago garrantzi handiago ematen zaiola pribatuari, eta ikasleen prestakuntza altuagoa izaten da. Horretan zer esan handia dute publikoaren aurrekontu murriztak, irakasle faltak, eta ikasketen plangintzarik ezak.

AUN.— Biek badute lekua Nafarroan, pribatua joan nahi duenak eskubide guztiak dituelako. Ikasle guztiak ikasteko eskubideak behar dituzte izan, eta ahalik eta ondoen.

Unibertsitate pribatuak, bestalde, bere arauak izango ditu beti, eta hori ezinbestekoa da.

ZABALIK.— Opuseko unibertsitateak zuzen zuzenean ikutzen gaitu, ematen dieten dirulaguntza handiak direla eta. Denek dute nahi duten eran

ikasteko eskubidea, baina horretatik, hain zuzen ere, publikoaren eskaintza ahalik eta zabalena izan behar da.

IKASLE ABERTZALEAK.— Opus hegemonikoa izan da Nafarroan orain arte, eta jende asko behartuta joan da bere unibertsitatara, besterik ez zegoelako. Gizarteak eskaintzen dituen ikasketak publikoan paratu behar dira, eta horretarako derrigorrezkoak dira dirulaguntzak.



plexu hori gure burutik kentzen dugun.

AUN.— Iruñeritik kanpo bizi den jendearen arazoari buruz, garbi dago oso txarki dutela ona etortzeko, baina oso lurralde handia da hau eta toki guztietan ezin dira ikasketak paratu. Soluziobidea litzateke bai Erriberan nola mendialdean zenbait ikasketak paratu, beste bi zentzutan, baina nahikoa zaila dela iruditzen zaigu.

mintzoak

ALETH: Urteberriz lizunbero

● Atzo, berandu heldu ninduan etxera hor barna elkartu nintzen mutilekin ederki ari bait nintzen. Alde egin zenutenez geroztiko gripeak oraino jota nengoenez —ohatzean utzi dizkidazuen bi hutsuneetan ez nauk moldatzen ahal aski hotz gelditu bait dira—, ez ninduan karrikaratu behar—gainera, halako gauetan *umeak* baizik ez dituk ibiltzen ohi: mutikoak botaka nahi ahobero eta neskato dextente urtearen lehendabiziko negarretan botaka ere—; alabaina, horren urrun abia aitzin oparitu zenidaten bideo porno bilduma nere buruari ekinez aho zabalik ikusi baino, *lizunbero* atera, hots, gogo lizuna mutil talderen batekin asetzera atera nahiago eta horixe nian deliberatu deus guti aurkituko nuelakoan banengoen ere. Zer zela-eta? Ez nauk betiko leloarekin berriro hasiko buruz aski ongi bait dakizue: hotz ikaragarriaz gain, jendea mozkor eta tipo zenbait eramanezinezko —lizunzale bazara, beti agitzen zaizu bere onerako nahi duena egin dezakeelako uste izaten duenik—. Nerekin, alta, halako gizon-iturri hotzek erreka jo diate. Badakizue zer nolako mutilak ditudan nik gustoko: zuen eta bertze hainbaten gisako direnak, alegia, mutil jator, polit eta lizunkoi direnak, hain zuzen ere; ez ordea, beren ona soilik betetzeko debalde makurtzen ez bazara «Ematarz arraioa!» —ematarz zatea berez iraingarri zapalgarri balitz bezala— goraki botatzen dizutenak. Zinez, gisa horretako arren erran zenbaitek gaizki jotzen zidak belarria; larrua jo ere, gisa horretako arrek ez diat uste ongitxo joko lidaketenik. Ezta saiatu ere!

Inkarekin topatu ninduan; berarekin gelditzeko erran zidaan, baina zegoen jendea ez zuan nik nahi bezain animatua eta hospa egin nian. «Dei nazan noizbait!», agindu zidaan hanka egiterakoan. «Deituko haut biharamuna pasatzen zaidanean!» ez zitzaiokeen, ez, bururatu. Hobe. Bai neska lela den zuek aski gogozko baduzue ere! —titi mardulak eta goitiko ipurdia dituenez...— Eta ez niagok jeloskor edo bekaizti... Lela duk eta kitto.

Zapa karrika urteoro bezala zuan: gain-gainezka; lurra zirristagarri arras; txiza usia, non nahi okaztagarri. Komunean ez zia goken deus egiterik bata toperaino zelarik bertzea 'hondatua' zioen txartelarekin zegoelako.

Jendearen zikina! Zin dagizuet: ez nian ia nehortxo musuka ikusi, *horzka* edo lizunbide aunitzez handiagotan; zirrikatzaile mozkorrik, lelo-lelarik eta bizitzean *gogor* gisa ibiltzen diren horietakorik ordea, bai andanaka.

Izorrakide dextenterik gozatuko zenuten honez gero, ezta? Zenbat emanen nukeen hanari zaretan neskatxen artean gozo fierka egoteko! Nola zirentziko dizuedan itzultzen zaretenean! Bertako nesken zurrupaldiak eskas agituko zaizkizue; eskas, eskas, eskas.



Goian erran bezala, mutil talde bat ezagutu nian. Nik ekin nioan hobe beharrez erran nuelarik: «Neskarik ez ote? Ala, komunean daude konpresaz aldatzen?» Haiek, hasieran, ez zekiaten zer egin segurki halako ekinaldi *indiskretik* espero ez zutelako —bai izaten dituk mutilak *hasleantzeko* neskaren batek ekiten dienean—; alabaina, jator eritzi nian eta ez nian ahalkearaziz gau osorako galdu nahi. Gauzak horrela, apalxeago jokatu nian.

«Denbora luzea daramazue Alde Zaharrea?» galdetu nian beretaz amultsu interesatuz neureganatzeko. «Afarilegea kanpoan egin dinagu —gurasoak herrira joanak ditun— eta mahats mordoia Plaza Berrian hartu», ihardetsi zidaan gazteen bide zenak. «Zer, anaiak zaituztet?», nik harriritxe. «Bai». «Ene bada!». Listo! unatu gabe bazituan eneganatuak xit. «Lehen, Carla lagunarekin egon gaitun; baina, hamabiak pasatxo, lagunarenera urtea izorratzen hastera joan ziaigun». «Tamala». «Handia, bai!».

Garagardo paré bat edanik, etxera gonbidatu nian eta sofan jarririk beren gorputz biluzietan enea murruskatzeaz batera, Jesusean jo nindian lehen kurrimenduak, gozkaraz jo, baita ohatzean beharrik ari izan ginenean ere. Goren puntuaren ondoko lasaitasunak hartu ninduen? Ez? gogo izugarria *neukaan*, energiarik sobera. Zinez eta bera, grabagarria! Beraz, ohatzeko hutsune hoztuarengatik ez kezka bihurtzen zaretenerako zerrepel zerrepel ukanen bait duzue. Berhorretan nauzue, eneok. Izanez ere, uda artio hilabete franko falta da. Aunitz goza!

Vicent Gil de Paules *Irakaslea*



TXALAPARTA

Gure liburuak

78 Postakutxa
TAFALLA (Nafarroa) Tel. (948- 70 32 77)

Gazteendako Zokoa

Basahatea

Anas platyrhynchos
Ur baretan bizi da
Hiriko parketan ikus
daiteke
Kolore anizduna



Ahateen arbasoa

Espezie hau etxeetan dauden ahateen arbasoa da, eta Euskal Herri osoan hazitzen den anseriforme bakarretakoa dugu. Arrak oso kolore erakargarriak ditu: burua berdea, eraztun antzeko zolda txuriarekin eta gorputza urdina. Emeak arrez tindatutako gorputza dauka. Hegoetan zolda urdinak ere izaten dituzte.

Ur baretan bizi dira: lakuak, uharkak, zingirak, eta burua uretan sartzen dute, lohietan landare, insektu, txapiskolak eta abarrak jateko. Askotan hirietako parkeetan ere aurki daitezke.

Gabez ondoko soroetan aritzen dira, eta bertan bikorrak edota eroritako fruituak hartzen dituzte. Ernaltzeko garaian, emeak aukeratu du arra, baina honen ardura da txofrakirako lekua bilatzea. Hau lurtean izaten da, baina uretatik gertu, eta barruan landare franko paratzen dituzte, ostu eta lumaz horniturik.

Emeak hamar-hamabi arraultz bitarte erruten ditu, eta orduan arrak utzi egiten du, beste eme baten atzetik ibiltzeko edota beste arrekin elkartzeko. Orduan galtzen ditu lumetako kolore guztiak.

Ahateak etxean haziteko ohitura ez da oso zaharra Europan. Erromatarrek, kasu, basahatearen arraultzak jasotzen zituzten, eta oilaloken azpian paratzen zituzten. Ahatekumeak, ondoren, kabetan sartzen zituzten alde egina ez zezaten.

LUIS ZIORDIA

Bazen behin hiri haundi batean zutik irauten zuen etxe zahar bat eta hantxe bertan Kepa izeneko mutil bat bizi zen. Kepa guapoa, alaia eta ausarta zen.

Eskolatik zetorren alai. Etxera sartu telebista piztu eta besaulkian eseri zen lasai lasai egunero egin ohi zuen bezalaxe. Bapatean... besaulkia mugitzen hasi zen. Kepa guztiz izuturik besaulkitik jeitsi nahian ibili zen, baina alferrik. Ezin zuen, eta tximista bat baina azkarrago atera zen leihotik.

Begiak irekitzean, argia pizteke zegoen, eta azkar ohartu zen espazioan barrena zegoela.

Zerurantz begiratu eta bonbila batzuk ikusi zituen eguzkiak hain distiratzin zutenak. Denbora gutxira planeta bat ageri zen. Planetara iritsi zenean lurreratze txarraren ondorioz berriro lurrean etzanda gelditu zen konortetik gabe.

Pixka bat geroago leku horietatik martziano batzuk zebiltzan. Letxugak bezain berdeak ziren. Mutiko gaixoa lurtean ikusirik, esnatu nahian ibili ziren. Kepak, begiak iriki eta martzianoak ikustean, egundoko oihua bota zuen, baina martzianoek beldurrik ez izateko esan zioten.

Gero herrixka erakustera eman zuten, sumendipean zegoen beraien bizilekura. Jakintsu bategen esango lukeen bezala, lojioa zen bera handia egitea.

Herrixka polita, garbia eta aurreratua zen, eta Bearin bezain txikia.

Hiru autobus betetzeko hain jende bizi zen eta hala ere ondo bizi ziren. Txukuntasuna zuten.

Baina bapatean... zerua petrolioz estaltzen hasi zen eta lurak mugitzen hasi ziren.

Martziano guztiak beldurraren eraginez etxeetara sartu ziren. Kepa agerian geratu zen eta kalean guztiz harriturik eta bakar-bakarrik.

Munstro bat agertu zen, handia, itsusi eta indartsua. Kepak segituan hanka egin zuen handik

Ibilaldi espaziala



eta izkin batean ezkutatu zen. Munstroak hauxe esan zuen: herriko martziano gaztetatik hasita zaharrena zeuden guztiak nahi zituela. Berdin zitzaion haundiak, txikiak, politikak edo itsusiak.

Martzianoek muntroak esandakoa egin zuten eta munstroak alde egin zuen. Martziano guztiak bahitutakoak erreskatatzea proposatu zuten, bilera serioa baten ondoren. Betiko lau martziano ausarta aukeratu zuten, eta Kepak galdetu zien eta beraiekin joan zitekeen. Martzianoek ezetz erantzun zioten. Orduan, martziano zaharrenak pauso bat aurrera emanez, laguntza guztia behar zela ohartzerazi zien beste.

Nekatu samar zeuden zegoeneko, ilunpetan eta nahikoa ibili bait ziren. Ibilaldiaren buru zenak kapsula bat atera eta zerurantz bota zuen. Etxetxo bat agertu zen. Kepa harria baino hoztzo geatu zen.

Biharamunean oilarrak kantu baino lehenago altxatu ziren eta martxari ekin zioten berriro. Munstroaren kobazulora ailegatzeko oso gutxi falta zitzairen. Heldutakoan kontu haundiz sartu ziren kobazuloaren barnerantz. Dena ilunpean zegoen eta zaborleku bat betetzeko hain zikinkeria.

Azkenik kobazuloaren gela batera sartu zirenean zati txuribeltz bat ikusi zuten. Hantxe zeuden martziano guztiak katez le-

poraino josita eta munstroarentzat lanean morroiak izango balira bezala. Orduan, Kepari ideia bururatu zitzaion: martziano bategen munstroa aldentzea, eta bertan besteek martzianoak askatu. Horrela egin zuten, gero munstroa hil nahian harrapagaia bat egin zuten, eta sumendiarantz bota zuten.

Herrira heldutakoan Kepari eskerrak eman nahi zizkioten. Lurrera itzuli nahi zuela esan zuen. Martzianoek besaulkitik hartu eta konpondu egin zioten. Kepa besaulkian eseri zen. Martzianoek orogarri ahalmen magikoarekin eman zioten, eta bost segundu pasa ondoren bertan etxean agertu zen telebistaren aurrean.

KAZKARROAN

Esaminak

Doimua: ia guriak egin du

Heldu dira esaminak mutiko buru arinak ez galdu zuen grinak ez bait gara sorginak pixkat peloteatuta esamina aprobaturik

Bikain, gutxi ta oso ongi esan iezadazu egi begiratu noteri eta baita aitari aurpegi txarra dauka ta hark ez zaitzala harrapa

Sergio Merino

BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

1. Herri nafarra
2. Aurpegiko ile
3. Kliente
4. Karta joko
5. Sumindu

1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5

1. Herri nafarra
2. Latz
3. Ahula
4. Aretoak
5. Ozenki

1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5

1. Herri nafarra
2. VII. hilabete
3. Ogi-saski
4. Eztena
5. Karrikak

1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5

Zaharrak berri

Probintzikoak, apostu egin baño lenago ateratzen diren izerdia.

Gipuztiak oso saiatu eta lan gileak omen direla.

Lizarraga

Gari ona arguriotik saltzen da.

Gauza onak bere txokotik atera gabe baditu erostunak.

Beramendi (Basaburua)

—Zergatik daukate jirafak hain lepo luzea?

—Burua oso goian dutelako

Bizi-Bizian

Erriberako en iritzi ezezaguna

Herri prentsa-
ren mundua
ezaguna egin
zitzaigun euskaldu-
noi Arrasaten lortu-
tako emaitzekin.
Ondoren etorri ziren
makina saio eta
ahalegin, askotan
aipatutakoak, baina
horietariko askok
huts egin zuten.
Gutxik dakite, or-
dea, Matias Escri-
bano tuterarra eta
'Ribera Navarra'
bere aldizkaria izan
zela guzti honetan
aitzindaria, eta hor-
tik jaso zutela ahol-
ku eta laguntza
Arrasatekoek. Egun
arrakasta aparta lor-
tuta dauka Erribera
aldera kazetari os-
petsu honek, eta
proiektuen artean
egunkari berri
bat martxan
jartzeko asmoa
azaldu digu.

PATXI ULAIAR / TUTERA

Zein herritan ez dira ahalegi-
nak egin herri aldizkariaren bat
ateratzeko? Euskaraz zein erda-
raz, kulturalak, informatiboak,
kirol aldizkariak, non edo non ez
da saiorik falta. Oso gutxik, bai-
na, lortu dute aurrera egitea eta
herrian benetako eragina izatea.
Nafarroan, euskaraz, 'Ttipi-Tta-
pa' dugu adibide garbiena. Erda-
raz, Erriberatik kanpo oso ezagu-
na ez izanda ere, 'Ribera Nava-
rra'.

Duela sei urte sortua, Matias
Escribano izan da urtarrila arte
bere zuzentzailea eta aldizkari
honi berezko izaera eman diona.
Askoren miwesmena jaso duen
izaera, hain zuzen ere. Inolako
dirulaguntzarik gabe, kolore ani-
tzetan, hirugarren argitalpena
izango du gutxi barru kalean,
lehendabiziko biak sobera fin-
katuta dagoeneko.

Iazko azaroan herri prentsari
buruz Arrasate Pressek antolatu
zituen ihardunaldien barruan,
'Ribera Navarrarena' izan zen
arrakasta handienetakoa izan
duena, ez alferrik Tuterakoa as-
koren aitzindaria izan bait da.
Gogoratu behar hemen Arrasa-
tekoek Matias Escribanorengana
jo zutela beren talde osatu nahian
zebiltzatela. Gaur egun oraindik
harreman estuak dituzte 'bien ar-
tean'.

Bi argitalpenak ditu egun ka-
lean 'Ribera Navarrak', eta
lehendabizikoa, bai denbora al-
detik nola garrantziari dagokio-
nez, astekaria. Berrogeitamar bat
orrialde, koloretan, eta publizite-
tate frankorekin. Aldizkariaren
% 70-75, hain zuzen ere. Hau bait
da enpresaren lema nagusia.

«Informazioa baino lehen,
enpresa», dio duda izpirik gabe
Matias Escribanok, «eta enpresa
errentagarria izateko publizitatea
behar da. Publizitatea berdin as-
katasuna. Hori garbi dugu he-
men».



Tuterako Foru Enparantza.

PATXI ULAIAR

Lorpenak, nolahi ere, argi
daude. 7.200 ale astero, denak
dohainik banatzen dira, eta Es-
cribanok azaldu duenez, «ez da
bat ere inon ikusten. Horrek esan
nahi du jendeak irakurri eta gorde
egiten duela».

Bertan azaltzen diren berriak
oso motzak dira denak, beti Erri-
beraren ingurukoak, eta erre-
dakzioan gehien idazten dena
orrialde bat izaten da. «Badugu
hiru mila pertsona zerrenda ba-
tean, aldizkaria euren etxetan

jaso nahian, baina ezinezkoa zai-
gu. Izan ere, ale gehiago botaz
gero, argitalpena ez zen errenta-
garria izango».

Bigarren argitalpena hilebete-
ro ateratzen da, eta dotoreagoa
izanda, bertan sakonago jorra-

tzen dira zenbait gai. 3.600koa da
honen tirada, horretan tranpa txi-
ki bat baldin badago ere. «Asteka-
ria jaso nahi duenak, aurretik hi-
labetekariaren harpideduna
behar du izan. Tranpa txiki bat da,
baina guztiz zilegizkoa».

Hau gutxi balitz bi aste barru
aterako da kalera enpresa honen

Badugu hiru mila
pertsona zerrenda
batean, gure aldizka-
ria jaso nahian, baina
ezinezkoa zaigu bi-
daltzea. Izan ere, ale
gehiago botako ba-
genu, ez zen errenta-
garria izango.

hirugarren argitalpena, 'Ribera
Navarra confidencial' izenekoa.
Astean hiru aldiz, zortzi orrialde-
tan, hurbil zein urruneko infor-
mazio gehiena irakurri ahal izan-
go dute harpidedunek, horretara-
rako hogeitabost egunkariaren in-
formazioa trinkotu egingo bait da
bertan.

«Harpidetza oso garestia da
—dio Escribanok—, hamar mila
pezeta hilero, baina 110 eskaera
ditugu dagoeneko. Berrehun lor-
tzerakoan kalera aterako gara, eta
honek izugarritzko arrakasta
izango du, ez dago dudarik».



«Egunkari bat Erriberako ikuspuntua ezagutu dezaten»

PATXI ULAIAR / TUTERA

«Enpresa honetatik, eta hau
lehendabiziz esaten dut publi-
koki, egunkari bat aterako dugu,
Tuteran egindakoa eta Nafarroa
osorako». Escribanok erronka
bezala dauka proiektua, «Erri-
berako ikuspuntua benetan Na-
farroa osoan ezagutu dezaten».

Ikuspuntu hau askotan defen-
ditu izan du 'Ribera Navarratik',
baina somatzen zaio beste toki
guztietara ere zabaltzeko grina,
bereziki arlo zehatzetan, hala no-
la Nafarroako Unibertsitate Pu-
blikoarekin.

Politikoren batek behin esan
zuen Escribanok «kruzada» be-
zala hartua zuela unibertsitatea-
ren gaia, eta ez zitzaion, ez, arra-
zozirik falta. «Erriberak, Nafa-

roakoa ezezik, Espainia eta Eu-
ropa osoko ongizate indize altue-
nak ditu, eta hau ez dut nik esaten,
Europak berak baizik. Ebroko
zona guztia aukeratuenetakoa da,
eta Erribera erdi erdian dago.
Izugarritzko etorkizuna daukan
zona da. Hala ere, bertako insti-
tuetan ikasten duten milako 6k
baino ez ditu unibertsitateko
ikasketak amaitzen. Almeria eta
Lugokoak baino baxuagoak!
Hori lotsagarria da Erribera
osoarendako, Nafarroako beste
zonetan ezagutzen ez bada ere.
Horregatik, unibertsitate publi-
koa Tuteran paratu behar izan
zuten».

Kexu agertzen da lurralde
osoa Erriberaz dagoen ikus-
puntua, eta «asto samarrak» dire-
la onartzen badu ere, iritzia alda-

tzen ari dela dio. Unibertsitate
publikoa Iruñean paratzeari, da-
goeneko beste hiru unibertsitate-
ko ikasketak bertan izanda, «mal-
tzurkeria» deritza Escribanok,
Tuteran, bere ustez, etorkizun as-
koz hobetagoa izan bait zezakeen.
«Hemengo ikasleek ezin dute
Iruñera joan, publikoan ez da-
goelako lekurik, eta pribatua izu-
garri garestia delako».

«Dena dugu: ongi bizi gara,
dirua badago, etorkizuna oparora.
Europa, Katalunia, Madril eta
Euskadiren arteko loturagunea
dugu. Hala ere, jendea unibertsiti-
tatera joaten ez bada, akabo, au-
kera alferrik galduta! Ezin da ho-
rrelakorik gertatu. Horretarako
behar dugu egunkari bat, eta nik
agian ez dut ikusiko, baina en-
presa honetatik aterako da».



Matias Escribano bere bulegoan.

PATXI ULAIAR

Joseba
Ozkoidi

Ikertzailea

Erroibarko folkloeari buruzko lana argitaratu berri du Eusko Ikaskuntza elkarteak, folkloeari buruz bere laugarren sail argitalpenean. Ortzadar taldeak egin-dako lanean ibar honetako herri kulturaren ezaugarri asko daude bilduta.

Aspaldidanik folkloearen biltzaileria, talde honek argitaratuta dauka dagoeneko beste zenbait lantxo, eta beste hainbeste argitaratzeko oraindik, eginak baina. Materiale mordo bilduta, zailena argitaratzea dela dio Joseba Ozkoidi taldeko partaideak.

«Herri nortasuna bilatzeko grina badago»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

EGUNKARIA.— Erroibarko buruzko lana zuek egin duzuen lehendabizikoa da edo aurretik gauza gehiago al zenituzten eginak?

JOSEBA OZKOIDI.— Ortzadar taldearen barruan inkesta monografikoak egiten aritu izan gara, herri kultura bilduz Nafarroako zenbait herritan. Batetik, zenbait ibarretan azterketa sakonak egin ditugu, eta Erroibarrekoa da adibidea, eta gero, bestalde, Nafarroako herri askotan elkarriketa pare batekin saiatu gara egoera aztertzen, baina azaletik. Erroibarren, adibidez, herri guztietan izan ginen elkarriketak egiten.

EGUNKARIA.— Elkarriketak soilik folkloeari buruz izan al ziren?

OZKOIDI.— Bai, baina folklore hitza zentzu zabalean hartuta. Kontutan hartu genituen egutegi folklorikoa, festak, ihauteriak, janzkera, dantzak, musika, gastronomia, herri medikuntza, denetarik.

EGUNKARIA.— Galdetegiaz baliatu al zineten horretarako?

OZKOIDI.— Beno, horretarako badago zenbait galdetegi eginda, hala nola Barandiaranena, baina guk birmoldatu egin genuen nolabait, eta azkenean gurea egin genuen. Hala ere, ez dugu galdetegi zehatzik egin, ez diogu itxi-itxian jarraitu. Gidoi moduan erabili dugu batez ere, eta kasu bakoitzean, segun eta gaia nola menperatzen genuen, galdera desberdinak izaten ziren.

EGUNKARIA.— Modu sakonean non erabili duzue galdetegi hau?

OZKOIDI.— Erroibarretik aparte, Aezkoan, Artzibarren, Arakilen, Burundan, Olloibarren, eta beste zenbaitzutan ere. Artzibarrekoa duela pare bat urte argitaratu zen 'Cuadernos de Etnografía' ize-



Joseba Ozkoidi.

neko sailean, eta Arakilgoa argitaratzeko asmoa ere badago. Material piloa bildu dugu zenbait urtetan zehar, eta oraindik jarraitzen dugu biltzen, baina arazo larria daukagu ateratzeko orduan, izugarritzko lana bait da.

EGUNKARIA.— Horrelako bilketa egiterakoan, somatzen al duzue, folklorismoaz aparte, gauza batzuk aplikagarriak direnak egungo gizarteari?

OZKOIDI.— Gauza asko aplikagarriak dira. Dantzak, musikak..., ohitura batzuk bizirik dira. Egutegi folklorikoari dagokionez, gauza asko bertan daude oraindik, eta galdu direnen artean, gauza batzuk berreskuratzeak direla uste dut. Sinismenak eta, gizarteak aldatu denez gero, ez daukate zentsu handirik gaur egun, baina gutxienez gure iragana nolakoa izan zen ezagu-

Herri txikietan oraindik herri kulturaren elementu asko berreskura daitezke, baina bertako eredia hartu behar da horretarako. Ez dagoenean asma daiteke, baina zerbait dagoenean, berreskuratu egin behar da.

tzea..., hori da asmoa. Zentsu horretan erabilgarritasuna bilatu ahal zaio.

EGUNKARIA.— Ibarren artean ere desberdintasun handiak daude folkloean garapenaren arabera?

OZKOIDI.— Badago alde handia ibarren artean, dudarik gabe.

Batetik, ohiturak ez zirelako leku guztietan berdinak. Lekuko berezitasunak ere baziren, eta hainbat lekutan gorde egin dira. Bestetik, herri haundienetan ere gehigo galdu da herri kultura, eragin handiagoa izan dutelako industriek, komunikabideek, eta abarrek. Beste batzuetan, nahiko ongi gorde dira ohitura zaharrak, eta orokorrean mendialdeko herri txikietan hobe gorde dira. Hala ere, batzutan izugarritzko aldea dago bailara baten barruan ere. Erroibarren, adibidez, euskara atzeraka egiten ari da, eta izugarritzko aldaketa somatzen genuen herrien artean, bost kilometrotan.

EGUNKARIA.— Eta euskararen egoera desberdinek ere herri kultura edota folkloearen egoera desberdinak sortzen al zituzten?

OZKOIDI.— Bai, euskara aurretik galdu duten herriak karreteran

daudenak edo koartela izan dutenak izan dira, edota kanpoko eragin handiagoa izan dutenak. Eragin hori arlo guztietan somatzen da: euskara, musika, dantza, kantutan, festetan. Giroa gehiago aldatu da herri hauetan.

EGUNKARIA.— Ohiturak zer moduz gordetzen dira?

OZKOIDI.— Bildu ditugunak nahiko ongi gorde dira, eta hasiera batean pentsatzen genuen baino datu gehiago bildu genuen. Jai batzuk —ihauteriak, kasu— izugarritzko garrantzia dute oraindik, eta San Juan gabak, solstizioaren inguruan egindakoak, eta abar, oso ongi gordetzen dira.

EGUNKARIA.— Orain badago Nafarroa osoan ihauteri eta herri kulturaren nolabaiteko berpiztea. Dena ezaguna dago, edo horrelako herrietan oraindik gordetzen al dira gauza asko ezkututa?

OZKOIDI.— Horrelako herri txikietan oraindik gauza asko berreskura daitezke, baina bertako eredia hartu behar da horretarako. Ez dagoenean asmatu daiteke, baina zerbait dagoenean, ezkututa izanda ere, berreskuratu egin behar da. Nik uste dut jende gaztearen artean badagoela herri nortasuna bilatzeko grina. Berrezko dantzak, janzkerak, ohiturak, badago gogoia berreskuratzeke.

EGUNKARIA.— Eta zerbait folkloriko gisa edo haien bezala hartzen al dute?

OZKOIDI.— Haiena deneko kontzientzia zenbait arlotan gordetzen da, hain zuzen ere gaur egun oraindik baliagarritasuna duten eredutan. Kontutan hartu behar da gizartearen egoera ere. Erroibarren, kasu, biztanlegoaren kopurua erdira murriztu da mende honetan, eta jenderik ez badago, hor ez dago berreskurtzerik edo gordetzerik.

JOXE

NOSKI JATOR

ZVLDI EROA

